

BEGOÑA (VI): XIX MENDEA EZKERO


Agertu dogu-
zan gudaldi eta
basatikerien
ondoren lez, San-
tutegia txirotasun
larrian aurkitzen
zan eta eleiza
ederra barrizta-
tzea eziña gen-
dun. Begoña'ko
Udalak ez eban
aurkitzen zain-
tzaille edo
"patrono" zana-
ren aldetik ezela-
ko laguntzarik
eta bearrezko
zeregiña zalako,
Udaletxea bera
eta eskolak baiño
be lenago eleizea

konpontzea erabagi eban. Urte batzuk geroago arazo
oneri buruz ara zer diñon eleizako buru-taldeak,
Kabildoak, Gotzaindegira bialdu ebazan barrien
artean: Erriaren aurrean urte batzutan arduradun
izana da naikoa, zelako laguntzak erriak emon dau-
zan jakiteko, eta ori bai Santutegia ber-egiteko lane-
tan eta bai torrea egiteko, baita Bizkaian onena dan
jaun-gurtza beteteko.

1814n. urteko agustuaren 1º egunean ekarri zan
Santiago'ren eleizatik Andra Maria'ren irudia bero-
nen Santutegira. Neurtu-eziñeko jentetza izan zan
laguntzaille.

Eta eregintza-lanak aurrera joiazan: 1849n. urtean
enkantean emon zan torrea ber-egiteko lana, urte
batean amaitzekotan. Armona"tar Antonio izan zan
etxegiña. Baiña 1862n. urtean, abenduaren 22n. egu-
neko goizaldean tximista batek kurutzea ta argi-tokia
bota ebazan. 1864n. urterako amaituta egoan onen
konponketa Eizaga"tar Jose M^a eskuzabalari ezke-
rrak. Argi agiri ziran gurutze urreztatua eta tximist-
gaillua, lenengoz ezarria.

Beste jakingarri bat: Aurreko gizaldietan Santute-
gia Bilbao'ko abadetaldearen ardurapean egoan eta



(Elorriaga'tar R.'ren can mu~nu). 1, uria edo kolera-gaisoa zala-ta irudia Bilbo'ra jatsi eben.

abade onein arte-
tik izendatzen zan
txanburua (parro-
koa). 1833. urtean
Begoña'ko Eliza-
teak Gotzaiñari
eskaria eginda,
auxe lortu zan:
Gozzaiñak Bego-
ña'rako abade-
talde bereizia
izendatu eta onek
artu egiala parro-
kiaren gogo-zain-
tza. Baiña aldiak
alakoak ziralako,
luzaro iraun eban
gotzaiñaren era-
bagi onek betetu
barik.

XIX gizaldian
izan ziran zori txarrak ain aundiak izan ziralako,
Santutegiak ez eban lortu aurreko urteetako ospea ta
edertasuna, baiña Bizkai'tarrak euren zaindariari
eutsoen maitasunak sendo be sendo iraun eban.

Ona emen zaletasun ori agertzeko jazokizun bat:

— 1855n. urteko iraillaren 8n. egunean kolera
deritxon izurriak kalte aundiak egin ebazan. Urtebe-
te aurrerago asi zan izurritea Bizkai'ko errietan eta
aldizka bigundu egiten zan baiña 1855n. urtera arte
iraun eban. Uztailean izan zan unerik larriena. Bil-
bao ta Begoña'ko abade-taldeak (Kabildoak) eta
Udal-Batzak alkartuta arrentza eratzeko, Bilbao'ra
jatsi eben Ama'ren irudia. Arrentza ori iraillaren 8n.
egunean izango zan. Urrengo gabeen egin ebazan
izurriak ilketarik aundienak, baiña urrengo egunetan
bat bera be ez zan il eta izurria ortxe amaitu zan. Ez
ziran il aurretik gaisorik egozan banaka batzuk
baiño. Arrentza onen gomutakia oraindiño be Basili-
karen ormetan ikusi daiteke: Elorriaga'tar Ramon
margolariaren eun margotua da.

OLAZAR'tar Martin'ek